AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

4072

EBAZPENA, 2015eko irailaren 9koa, Justizia Administrazioko zuzendariarena, zeinaren bidez iragartzen baita Herri Administrazio eta Justizia Saileko Justizia Administrazioko Zuzendaritzan Autonomia Erkidegoko peritu koordinatzailearen lanpostua (3435 kodea, 1. dotazioa) izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko deialdi publikoa.

Autonomia Erkidegoko peritu koordinatzailearen lanpostua (3435 kodea, 1. dotazioa) hutsik dago Herri Administrazio eta Justizia Saileko Justizia Administrazioko Zuzendaritzan. Beraz, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.3 artikuluan xedatutakoaren arabera eta Funtzio Publikoko Zuzendaritzak aldeko txostena eman eta gero, sail honek erabaki du iragartzea eranskinean adierazitako lanpostu hori izendapen askearen bidez beteko dela. Hona hemen horretarako oinarriak:

OINARRIAK

Lehenengoa.– Parte hartzeko baldintzak.

1.– Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lan-kontratu finkoko langileek, baldin eta eranskinean ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

2.– Aipatutako langileek edozein administrazio-egoeratan egonda har dezakete parte deialdi honetan, honako hauek izan ezik:

Eginkizun-gabetze irmoa ezarrita duten lan-kontratuko langileek, egoera horrek dirauen bitartean.

Norberaren interesarengatiko edo familia bateratzeko borondatezko eszedentzian egonik, lanera itzuli baino lehen, eszedentzian egon beharreko denbora bete ez dutenak.

3.– Deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunerako beteta izan beharko dira eskatutako baldintzak. Esleitutako lanpostuak jabetzan hartu arte bete behar dira eskakizunak. Parte hartzeko baldintzak betetzen jarraitzen ez duten parte-hartzaileek ezingo dute esleitutako lanpostua jabetzan hartu.

Bigarrena.– Eskabideak.

1.– Hautagaiek Justizia Administrazioko Zuzendaritzara bidali behar dituzte eskabideak, eta, horretarako, hamar egun natural izango dituzte, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskabidean, datu pertsonalak eta egun betetzen duten destinoa adieraziko dituzte.

2.– Eskabide-idazkiarekin batera, curriculum vitaea aurkeztuko dute hautagaiek, eta, bertan, honako hauek adieraziko dituzte:

a) Titulu akademikoak.

b) Betetako lanpostuak, bai administrazioan, bai enpresa pribatuetan.

c) Egindako ikasketak eta ikastaroak, hizkuntza-jakintzak, eta hautagaiek egoki iritzitako gainerako merezimenduak.

Eskabidearekin batera, eskatutako baldintzak betetzen dituztela eta adierazitako merezimenduak dauzkatela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte hautagaiek. Dena den, horiek dagoeneko Langileen Erregistroan badaude, ez dituzte aurkeztu beharko. Halaber, esandako guztiez gain, aurkeztu beharrekotzat jotzen dituzten argitalpen, txosten edota bestelako agiriak ere aurkez ditzakete.

Hirugarrena.– Ebazpena.

Justizia Administrazioko zuzendariak ebazpen bidez ebatziko du deialdi hau, gehienez hamar egun naturaleko epean, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Lanpostua lortzen duen pertsonak, ezarritako epean hartu beharko du jabetzan lanpostua, eta, hala badagokio, aurreko lanpostuaren titulartasuna galduko du.

Ebazpen honek ez dio administrazio-bideari amaiera ematen. Beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justiziako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera.

Gora jotzeko errekurtsoa jarri zenetik hiru hilabete igarotzen badira, eta ebazpenik ematen ez bada, ezetsi egin dela ulertuko da, eta administrazioarekiko auzietako bidea zabalik geratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko irailaren 9a.

Justizia Administrazioko zuzendaria,
JON ARTURO URIARTE UNZALU.

ERANSKINA

Deialdiko lanpostua:

– Izena: Autonomia Erkidegoko peritu koordinatzailea

– Kodea: 3435

– Dotazioa: 1

– Titulazioa: unibertsitateko diplomaduna

– Hizkuntza-eskakizuna: 4, Derrigortasun-data: 2002/03

Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 97.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, derrigortasun-data duten 4. hizkuntza-eskakizuneko lanpostuetarako hautaketa- eta hornikuntza-prozesuetan izangaietako inork ez badu egiaztatzen hizkuntza-eskakizun hori, 3. hizkuntza-eskakizuna aplikatuko zaio lanpostuari, deialdi horretan lanpostua bete ahal izateko helburuarekin baino ez.

– Tokia: Justizia Administrazioko Zuzendaritza

Herri Administrazio eta Justizia Saila

– Destinoko herria: Bilbao.